



Apirilaren 27ko 7/2021 Errege Lege Dekretuaren bidez abenduaren 28ko 37/1992 Legeari egindako aldaketak

1) Ondasun entregen bi kategoria berriren definizioa (BEZaren Legearen 8.Hiru eta 8 bis artikulua).

Leihatila bakarraren aplikazio eremua argi eta garbi zehazteko, ondasun entregen bi kategoria berri definitu dira:

- **Ondasunen batasun barruko urrutiko salmentak:** hornitzaileak estatu kide b+atetik beste batera bidali edo garraiatutako ondasunen entregak, baldin eta haien hartzaileek azken kontsumitzaile gisa jarduten badute edo halakoak badira. Ondasunak ez dira garraibide berriak edo instalatu eta muntatzeko ondasunak izan behar.
- **Hirugarren herrialde edo lurraldeetatik inportatutako ondasunen urrutiko salmentak:** hirugarren herrialde edo lurralde batetik abiatuta hornitzaileak bidali edo garraiatutako ondasunen entregak, estatu kide batean finkatutako azken kontsumitzaile gisa jarduten duten edo halakoak diren hartzaileentzat. Eragiketa horiek ez dute zerikusirik inportatutako ondasunen hartzaileak egiten duen inportazioarekin. Ondasunak ez dira garraibide berriak edo instalatu eta muntatzeko ondasunak izan behar.

2) Balio txikiko ondasunen inportazioetan salbuespena kentzea (BEZaren Legearen 34. artikulua).

Kendu egiten da balio txikiko ondasunen inportazioetan gaur egun merkantziaren balio globaleko 22 euroraino aplika daitekeen salbuespena; horrela, leihatila bakarrera biltzen ez diren ondasunen inportazioek inportazioaren BEZa likidatu beharko dute.

3) BEZaren salbuespena, leihatila bakarraren bidez aitortzen diren inportazioetan (BEZaren Legearen 66.4 artikulua).

Inportazioko leihatila bakarraren (IOSS) erregimen berezia aplikatzen laguntzeko eta zergapetze bikoitza saihesteko, BEZaren salbuespen bat ezartzen da inportazioaren unean erregimen berezi honen arabera aitortu behar diren ondasunen inportazioetarako.

Saltzaileak edo, bestela, bere kontura jarduten duen bitartekariak Aduanari eman beharko dio berari esleitutako banakako identifikazio zenbakia (IOSS), gehienez inportazioaren aduana aitortpena aurkeztean.

Berezko balioa 150 eurotik gorakoa ez duten bidalketei baino ez zaie aplikatuko, eta zerga bereziei lotutako produktuak kanpoan gelditzen dira.

4) Ondasunak entregatzeko lekua (BEZaren Legearen 68. eta 73. artikulua).

Ondasunen batasun barruko urrutiko salmentek **hartzaileak merkantzia jasotzen duen estatu kidean** tributatu dute.



Hala ere, salmenta horiek **garraioa hasten den lekuan tributatuko dute**, baldin eta estatu kide bakar batean kokatutako enpresaburuek egiten badituzte eta beren zenbatekoak ez badu gainditzen, Batasunean bide elektronikoz emandako telekomunikazio eta irrati eta telebista zerbitzuekin batera, Batasunean **10.000 euroko atalase komuna**. Kasu horretan, enpresaburuek aukera izango dute zergak helmugan ordaintzeko.

Zerga bereziei lotutako ondasun entregak helmugan zergapetuko dira beti, baldin eta hartzaileak BEZaren Legearen 14. artikuluaaren arabera ondasunen batasun barruko eskurapenak egin behar ez dituzten pertsonak badira.

Hirugarren herrialde edo lurraldeetatik inportatutako ondasunen urrutiko salmentak bidalketa edo garraioa iristen den estatu kidean zergapetuko dira, leihatila bakarraren inportazio erregimen berezia aplikatzen denean.

5) Zerbitzuak emateko lekua (BEZaren Legearen 70.Bat artikuluaaren 4. eta 8. zenbakiak).

Batasuneko 10.000 euroko atalase komuna aplikatzen zaie estatu kide bakar batean kokatutako enpresaburuei, kokapen estatu kidean bitarteko elektronikoen, telekomunikazioen eta irrati eta telebista zerbitzuak zergapetzeko. Atalase horrek barnean hartzen du batasunaren barruan egindako urrutiko salmenten zenbatekoa.

6) Interfaze digitalak: plataformak, atariak eta lineako merkatuak (BEZaren Legearen 8 bis, 20 bis, 75, 94.Bat.1.c eta 166 bis artikulua).

BEZaren sarrera ziurtatzeko eta hornitzaileen, zerga administrazioen eta azken kontsumitzaileen karga administratibok murrizteko, ulertu beharko da interfaze digital baten titular diren enpresaburuek edo profesionalek **beren izenean jaso eta entregatu dituztela** ondasunak, honako salmenta hauek errazten dituztenean¹:

- Hirugarren herrialde edo lurraldeetatik inportatutako ondasunen urrutiko salmentak, berezko balioa 150 eurotik gorakoa ez duten bidalketetan.
- Batasunean finkatu gabeko hornitzaile batek Batasunaren barruan azken kontsumitzaileei egindako ondasun entrega.

Fikzio horrek zerga inplikazio garrantzitsuak ditu:

- Interfaze digitalen titularrak zergaren subjektu pasibotzat hartzen dira.
- Bi ondasun entrega egiten dira: bata hornitzaileak interfazearen titularrak egiten diona; eta, bestea, interfazearen titularrak azken kontsumitzaileari egiten diona. Bezeroaren ordainketa onartzen denean sortzen dira bi entregak.
- Ondasunen garraioa interfazearen titularrek azken kontsumitzaileari egiten dioten entregari lotuta dago.

1 282/2011/EB Exekuzio Erregelamenduaren 5 ter artikuluaaren arabera, salmentak "errazten ari direla" ulertuko da interfaze elektronikoko bat erabiltzen denean bezero batek eta ondasunak salmentan jartzen dituen hornitzaile batek bezero horri interfaze elektronikoko horren bidez ondasunen entrega ekarriko dion kontaktu bat egiteko asmoz.



- Hornitzaileak interfazearen titularrari ondasuna entregatzea BEZetik salbuetsita dago, eta ez du mugatzen hura egiten dutenek jasandako BEZaren kenkarirako duten eskubidea.

Interfaze digitalaren titular den enpresaburua edo profesionala leihatila bakarraren erregimen berezietara bildu ahal izango da, eragiketa horietatik eratorritako BEZaren aitorten-likidaziorako, baldin eta eragiketa horien ondorioz subjektu pasiboa bada, baita merkantziak biltegitratzen diren estatu kide berean azken kontsumitzaileei egindako barne entregak badira ere.

Interfaze digital baten titular diren enpresaburuek edo profesionalak honako **erregistro betebeharrak** hauek izango dituzte:

a) Ondasun entrega edo zerbitzu prestazioa errazten dutenean eta subjektu pasibo ez direnean: eragiketa horien erregistroa, zeinaren edukia bat etorriko baita Kontseiluaren martxoaren 15eko 282/2011/EB Erregelamenduaren 54 quater.2 artikuluan xedatutakoarekin; erregistro horrek bide elektronikoz egon beharko du, alde aurretik eskatuta, estatu kide interesdunen eskura. Erregistro hori hamar urtez mantenduko da.

b) Ondasun entrega errazten dutenean eta subjektu pasibo direnean, edo zerbitzuak bide elektronikoz ematen dituztenean, beren izenean ari direla iritzita:

- 282/2011/EB Erregelamenduaren 63 quater artikuluan ezarritako erregistroak, enpresaburuak leihatila bakarreko erregimen bereziak erabiltzen baditu.
- BEZaren Legearen 164.Bat.4 artikuluan ezarritako erregistroak, leihatila bakarrari heltzen ez badiote.

7) Leihatila bakarreko erregimen bereziak (BEZaren Legearen IX. tituluko XI. kapitulua).

8) Inportazioen gaineko BEZa aitortu eta ordaintzeko modalitate berezia (BEZaren Legearen 167 bis artikulua).

Enpresaburuak edo profesionalak ez badu aukeratu ondasun inportatuen urrutiko salmentei aplikatu beharreko erregimen berezira biltzea, aitorten modalitate berezi hori aplikatu ahal izango du, honako **baldintza** hauek betez gero:

- Bidalketaren berezko balioa 150 eurotik gorakoa ez izatea.
- Zerga bereziei lotutako ondasunak ez izatea.
- Bidalketaren edo garraioaren azken helmuga zergaren aplikazio lurraldea izatea.

Kasu horietan, ondasun inportatuen hartzailea arduratuko da BEZaren ordainketaz, baina ondasunak Aduanan izapidetzeko aurkezten dituen pertsonak hartzailearen zerga bilduko du eta bildutako BEZa ordainduko du, hilabete naturalean egindako inportazioei dagokien aitorten modalitate berezi baten bidez.

Inportazio horiek tasa orokorraren arabera zergapetuko dira.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas

Zeharkako Zergak eta Ingurumen Tributuak
Kudeatzeko Zerbitzua –
Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Atala
Errotaburu, 2 - 2., 20018 Donostia
☎ 943 113000 📠 943 113 292
www.gipuzkoa.eus/ogasuna

Servicio de Gestión de Impuestos Indirectos y
Tributos Medioambientales –
Sección del Impuesto sobre el Valor Añadido
Errotaburu, 2 - 2., 20018 San Sebastián
☎ 943 113000 📠 943 113 292
www.gipuzkoa.eus/ogasuna